


Noaia!!!

www.noaia.com



Asteburu honetan kenduko dira kaleko zabor ontziak



Aukera berdintasuna,
oraindik asko dago egiteko

iratze

NATURDENDA

www.iratze.es

ESKAITZA BERRIA

JOSE MARIA CAÑETE NATURISTAREN ZERBITZUA

TRATATUKO DITUEN ZENBAIT GAIXOTASUN:

- KOLESTEROLA, DIABETEA, TENTSIOA...
- AZALEKO ARAZOAK (DERMATITISA, PSORIASISA...)
- ALERGIAK
- SINUSITIS, OTITIS
- INMUNOLOGIA SISTEMA ARAZOAK
- ODOLEKO ARAZOAK
- MINBIZIA
- ARTROSISA, ERREUMA
- MENOPAUSIA, OSTEOPORIS
- EMANKORTASUN TRATAMENDUAK
- DIGESTIO ARAZOAK. IDORRERIA
- PROSTATAKO ARAZOAK
- E.A

zure txanda alde zurretik eskatu

943 36 12 76 zubiaurrenea 10, USURBIL

LASARTE

autoeskola

☎ 943 36 27 93



➔ Orain 16 urterekin teorikoa atera dezakezu!!!

➔ Azterketa teorikoa zailagoa jarriko dute laster, aprobetxa ezazu orain!!!




Usurbil

Udaberria Urtinean



Zatoz

eta jantzi kolorez zure etxe, balkoi zein lorategia



Urtinea Lorategia

San Esteban kuttia
Tf: 943 362 238 Fax: 943 366 054
E-mail: www@urtsukab.net

Albistea iruditan !!

670 kilo bildu ziren, Saharara bidaltzeko

Guztira 400 elikagai tona bildu dira Sahararen aldeko elkartasun kanpainan; errefuxiatu kanpamenduetan bizi diren herritarrengana iritsiko diren tonak. Kopuru horretatik 670 kilo Usurbilen bildu ziren urtarrilean zehar, Udarregi ikastolan eta Aliprox eta Dia saltokietan egokitutako guneeetan. Krisialdi ekonomikoa bete-betea batetik eta aurtentzen egiteko epea laburragoa izanik, espero zen jaitsiera (beste urte batzuetan gehiago bildu da gure artean). Kanpainako eragileek eskerrak eman nahi dizkiete, urteroko ekimean parte hartu duten herritarrei, baita Udarregiri eta saltokiei ere.



URTARRILEAN HASI ZEN SAHARAREN ALDEKO BILKETA. KRISIAK ERAGINDA, AURTEN ELIKAGAI ETA OSASUNGAI GUTXIAGO BILDU DIRA.

Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com
Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com
Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com
Publizitatea: Bea Alda, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

KRONISTAK KALEJIRAN _____ **6. OR.**

AUKERA BERDINTASUNA AZTERGAI _____ **12. OR.**

NOAUA! TXIKI, KUTXA ESPAZIOAN _____ **14. OR.**

ANDATZA MENDI TALDEAREN IRTEERA _____ **15. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Otar-Goxo
Elikagaiak

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

izagirre

ELEKTRIZITATEA

943 36 50 95-609 06 81 11
izagirreletrizitatea@hotmail.com
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725



IMANOL UBEDA

Txikikerietan

Andatza udal aldizkariaren azken aleak dakar albistea. Dagoeneko, herritar askok irakurrita izango duten berria. Gaiak jakinmina pizten duelako. Hau da, hain zuzen, hizpide hartuko dudana artikulua: "Etxebizitzaren arazoari irtenbidea emateko lanean ari da udala". Gazteleraz, "Objetivo: remediar el problema de la vivienda".

Bi hizkuntzetan jarri dut titularra, bai. Izan ere, albistea bakarria bada ere, bietan ez baita informazio bera ematen. Txikikeria batek atentzioa deitu dit. Seguruenik, azalekoa baino ez dena. Maketazioa egiterakoan, kastellanozko bertsoa moldatzen hasi, testua espazioan sartu ez eta nonbaitek laburtu behar. Edo akaso, ausartagoa iruditzen zaidana. Itzulpena, libre antzean egin nahi izan dela. Auskalo, "Mañana y tarde / bihar eta berandu (bus geltoki batean jaso)" eta antzeko perlak gogoangarriak badira ere, ekidin asmoz edo. Kontua da mezua behar bezala ez jasotzeko arriskua duela itzulpen libreak. Hori da hain zuzen nire atentzioa deitu duen txikikeriak. Euskaraz eta gazteleraz ez dela gauza bera adierazten.

Ez naiz itzultzaile. Baina zoritxarrez, euskaldun kazetarioi maiz tokatzen zaigu lan horretan aritzea, tartean, euskal iturrietatik datozkigun ele bakarreko albisteei "esker" (gaztelera hutsean, noski). Baina hori beste upel bateko sagardoa da. Itzulpenak egiterakoan, hau da nik egin izan dudana: testuak esan nahi duena interpretatu eta era ulergarrian itzuli.

Harira, Imanol. Euskarazkoan, hau dio Andatza udal aldizkariak: "(...) Lehentasuna alokairuzko etxebizitzari eman arren, orain arte bezala babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea bultzatu nahi du udalak. Hala ere, testuinguru ekonomikoak

ez du egitasmo hori aurrera eramaten asko laguntzen. Horregatik, hori egitea posible ez bada, etxebizitza tasatuak eraikitzea ahalbidetuko da (...)"

Gaztelerazko testua irakurtzen bada, "tasatuak eraikitzea ahalbidetuko da" esaldiaren itzulpena ez da inon azaltzen. Lehen esan dut, akaso aldizkariaren maketatzailerak espazio arazoak izango zituen nonbait, eta guraizeak atera behar. Baina edukiari dagokionez behintzat, ez dirudi betelan moduko esaldia denik hori. Beste era batean esanda, itzulia izateko baduela garrantziarik, ala ez? Edo kastellanoz hitz egiten dutenek libreak edo babes ofizialekoak bakarrik erosten dituzte? Ez al dute tasatuetan izena emateko ohiturarik?

'Gauza garrantzitsuagoak bazeudek munduan, eta hi txikikerietan', pentsatuko du baten batek (maketatzailerak edo itzultzaileak, esate baterako). Tira, ba akaso arrazoi osoa izango du. Albistearen pasarte horrekin jarraituko dut, baina honakoan mamiari helduz.

Nik dakidala, etxebizitza tasatuetan izena emateko baldintzak ez dira etxebizitza babestuen berberak. Prezioak tasatuetan, altuagoak direlako, besteak beste. Tasatuetan prezioak altuagoak direlako, izena emateko baldintzak ez dira babestuen berberak... Kasu horretan, babestuak egin ez eta tasatuen aldeko apustua egiten bada, hau nire iradokizuna: izena ematen duten herritarren *testuinguru ekonomiko* ere kontuan hartzea.

Txikikeriak alde batera utzita, laster gai honi buruzko bilera ireki bat egingo dela dio Andatza udal aldizkariak. Hori da inportanteena. Zalantza denak argitu eta komunikazio zuzena ahalbidetuko duen batzarra deitzea.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Ika-milka !

Martxoaren 6tik aurrera, haragi zozketarako txartelak jarriko ditugu salgai. Zenbaki bakoitza euro batean. Lehenengo zozketa martxoaren

15ean izango da (igande honetan).

Bestetik, oraindik urteko kuota ordaindu ez dutenentzat, beste epe bat irekitzera goaz: martxoaren 31 arte.

Egun horretatik aurrera, bi euro gehiago ordaindu beharko da kuota.

Gure Pakea elkarte

J.ORBEGOZO
ITURGINTZA · GASA · BEROKUNTZA
BIZKARRA 1, 1.EBK 943372937 · 659602789

teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE
Obaba kalea 29 · ASTEASU
943 69 68 52 · 620 800 186

“Garai berri bat hastera doa”

Astelehenetik aurrera, atez ate egingo da hondakinen bilketa

Udalak eta San Markos Mankomunitateak atez atekoaren aldeko apustuarekin bat egin dutela argi utzi zuten beste behin ere, pasa den astean eskaintako prentsaurrekoan. Martxoaren 16a hurbil dagoen honetan, garai berri baten hasiera gerturatzen ari da atez ateko sistemako eragileen esanetan. Erakutsitako jarrera parte hartzaileagatik herritarrak zoriondu nahi izan zituzten. Bilketa modu berria jarriko duen lehen herria Usurbil izango da, baina ez azkena eragileen esanetan. Jada, itxarote zerrenda dago eta.

“Aro berria zabalduko da Usurbilen eta Euskal Herri osoan”. Iragarpen horixe egin zuen Xabier Mikel Errekondo alkateak, atez atekoari buruz San Markosko Mankomunitateko eta Udaleko ordezkariak pasa den martxoaren 5ean eskaini zuten prentsaurrekoan.

RIKARDO ORTEGA, SAN MARKOS

“Zortea opa dizuet.
Zuen arrakasta gu guztion
arrakasta izango delako”

Hondakinen arazoari aurre egiteko konponbide gisa eta ingurugiroa zein herritarren osasuna zaintzeko kudeaketa modu onena bezala aurkeztu zuten, martxoaren 16an abian jarriko den atez ateko bilketa. Sistema berritzaile gisa, egungo zabortegeien beharrik ez dagoela erakutsiko delako, aitzindaria Usurbilen halako kudeaketa modua abian jarriko duen lehen herria izango delako. Eta teknikoki bideragarria, baita egungo sistemarekin alderatuta ekonomikoki aurreztailea ere.

Hondakinak, birziklatu, tratatu eta berrerabiltzeko lehengaietan bihurtuko direla eta egungo birziklatze tasa irauli nahi dela adierazi zuten; gaikako bilketa egungo %20ko mailatik, etorkizunean %80ra igotzea hain zuzen. Eta azkene-



EZKER ESKUIN, JORDI COLOMER, RIKARDO ORTEGA, XABIER MIKEL ERREKONDO, IMANOL AZPIROTZ ETA IZASKUN TXINTXURRETA. ATEZ ATEKO BILKETA SISTEMA BERRIKO ERAGILE NAGUSIAK.

an, prentsaurrean aipatu zenez, “erraus-tegiaren zentzua desagerraraztea”. Horretarako Usurbilek bakarrik ez, gainerako herriek ere atez atekoaren aldeko apustua egitea beharrezkotzat jo zuten.

Zorionak herritarrei

Gipuzkoako, Herrialde Katalanetako edota estatu espainiarreko hainbat udal-errietatik jasotako babesa eskertu nahi

izan zuen alkateak. Herritarrei mezu bikoitza helarazi zien; eskerrak eman zizkien parte hartzeagatik eta erakutsitako jarrera baikorragatik zoriondu nahi izan zituen. “Guztion artean lortuko dugu bilatzen ditugun emaitzak”, adierazi zuen. Animo hitzak helarazi nahi zizkieten atez ateko hondakin bilketa sistema berriko ardatza izango diren herritarrei.

Hondakinak ateratzeko identifikazio zenbaki bat edukiko du etxebizitza bakoitzak

Ontzi marroi bakoitzaren jabeak bakarrik jakingo du, zer zintzilikagailuetan utzi beharko duen egunez eguneko hondakin zatia. Gainera, organikoa etxe atarietan uzteko kubo marroi bakoitza norberaren zein den jakiteko modua ere izango da. Inork berea ez den kuborik etxera ez eramateko, eta noski, familien pribatutasuna errespetatu eta zaintzeko. Baita atez atekoa ondo egingo dela ziurtatzeko

ere. Horretarako, Udalak egunotan eskutitz bat bidaliko die hondakinak atez ate bilduko dizkieten herritarrei. Gutunean identifikazio zenbaki bat izango du. Horrekin batera, zenbaki bera daramaten bi pegatina. Zenbaki hori buruz ikasteaz gain, herritar bakoitzak jasoko dituen bi pegatinak, zati organikoa jasotzeko erabiliko diren ontzi marroi banatan itsatsi beharko ditu.

SANTUENEA

ALEX TELLO

Auzoko grafiteroak



Gaztetxoak kalean ikusten ditut, gurasoen etxean edo kobazuloetan ez daudenean. Gaztetxoak, haur eta gaztearen arteko aurre-nerabeak. Ezagutzen ditut, beren adinarekin halakoa izan bainintzen (gazte eta heldu denok bezala) eta beranduago, beraiekin elkarbizitza landu nuelako (kale hezitzaile bost urtez, ez aspaldi).

Beren denbora librean telebista eta bideojokorik gabe egoten direnean, askotan galduak egoten dira. Dirudienez, asko ez dira ligatzen hasi oraingoaz eta kirola, musika eta bestelako diziplinetatik libratu eta denbora-pasarako tartekin aurkitzen direnean, ASKOK zer egin ez dute jakiten. Nolabait aspertu eta orduan, blokeatzen ez badira, elkarri aztoratzen edo auzoa zirikatzen hasten dira. Batzuetan modu egokian, besteetan ez.

Aukera ugariak izan ditzakete eta batzutan ahalegintzen dira zaletasunei bidea ematen. Baina bat "galdua" dagoenean nahiarekin ez du nahikoa, orientazioa (eta akaso, laguntza) behar du. Dena den, argi gera dadila galdua esan dudala eta ez, desbideratua.



Uler nazazuen 'adibidea': auzoko gaztetxoek pintura sprayak hartu eta 'pintadak' egin dituzte. Baina ez dakite NOLA (hitzak dituen zentzu guztiak kontuan harturik).

Graffiti tailerra (eta tokia) behar dute. Ikastaroa baino, beren neurrirako tailerra baizik. Nork erakutsiko die?

KALEBERRI

BEGOÑA REKONDO

Film laburrak



Aurten ere euskarazko film laburren zirkuituaren barruan, zortzi pelikula ikusi ahal izan genituen Sutegin. Ordubeteko saioa izan zen eta bertan gai ezberdinak jorratu ziren. Bakardadearen gaia "Kabia" eta "Lo bakarrik" filman ikusi genuen. "Musika" izenekoan berriz, haur batek errespetua zer den ikasiko du, elbarri baten bidez.

"Berde" izenburua duena berriz, ez genuen ulertu. Batzuetan gertatzen zait film laburrekin, nahiko abstraktuak egiten zaizkidala. "Egiatik gezurrezko bizitzara" filmak, patua du gaitzat. "Poema" filma torturari buruzkoa zen eta bertan, idazle poloniar batek idatzitako poema baten irakurketa egiten dute torturatuak izandako zenbaitek. Azken biak arinagoak ziren, bata "P. D." izenekoak, irudimen haundikoa, eta azkenengoa "Bankuaren lapurreta", barre eginaz ziguna, komedia moduan egina.

Proiektzioa bukatu ostean, Iban Del Campo arrasatearrak eta "Lo bakarrik" lanaren zuzendariak azalpen batzuk eman zizkigun bere filmari buruz. Adibidez, hiru egunetan eta Tabakalera grabatu zutela bere laburmetraia. Berak eta Harkaitz Cano idazleak produzitu zutela, Arrasateko udalaren dirulaguntza txiki batekin. Bukatzeko gerturatutako jendeak ere izan zuen galderak egiteko aukerarik.

ATXEGALDE

AINARA ARNAIZ

Guztion esku dago

Gabonetan Olentzero etorri zain egoten garen moduan aurkitzen gara momentu honetan. Zergatik diodan hau? Astelehen goizean hasiko baita ofizialki atez ateko bilketa. Gero eta gutxiago falta da azken hilabete hauetan horrenbeste eragina izan duen zaborraren festa honi hasiera emateko. Aste honetan dagoeneko Atxegalden jarri dituzte konposta egiteko erabiliko ditugun kubo marroien zintzilikarioak. Beraz prest gaude atxegaldetarrok (baten batzuk kenduta...) ekimen honetan parte hartzeko. Denon laguntzarekin lortuko dugu herrian eta bereziki gure auzoan hainbesteko buruhauste sortzen dizkigun zaborraren arazoari irtenbidea ematea.

Larunbat eta igande honetan kontenedore edo edukiontzia (zabor, paper eta plastikoenak) kaleetatik desagertuko dira, beira biltzeko edukiontzia izan ezik. Atez ateko bilketa astelehenean hasiko da eta ordutegia haxe izango da: goizeko 6:30-8:30ak artean. Bestalde, hil honen 19tik 22ra zubia izango dugu askok baina atez ateko bilketa zerbitzua ez da etengo egun horietan. Dena ondo ateratzea guztion esku dago, bestela Olentzerok ikatza banatzen nahiko lan izango du aurtengo gabonetan...



AGINAGA

M^aANGELES ARRUTI

Errepide arriskutsua



Egunero joaten naiz Usurbila eta askotan bitan ere bai eta egia esan, aspaldian behintzat, mozkortuta bezala ibiltzen naiz autoarekin bidean, beste guztien moduan. Hasi Intxaurretatik eta Lasao arte, zuloz betea dago errepidea eta haiek saihesteko horrela ibili beharra dago. Gutxien espero dugunean, hor geratuko gaituzte ertzainek, alkoholemiaren froga egiteko.

Badakigu gauzak konpontzea ez dela esatea bezain erraza baina, gauza zailagoak ere egiten dira eta hau horrela dagoela bada denbora. Gainera, argi geratu da petatxoak jartzea ez dela nahikoa eta erdizka konpondutakoa berriz ere segituan zulatzen dela.

Ez dakit Udalaren lana edo Foru Aldundiaren ardura den errepideak konpontzea, baina tarte honetatik bidaltzen dut abisua, ea baten batek irakurtzen duen eta konponbidea jartzen dion arazoari.

Konponketaz ari garela, pasa den asteko haizeteak ere konpondu beharrekoak utzi dizkigu auzoan. Frontoiaren sabaia altxa du eta inguruan zeuden zenbait kotxe ere kalteu zituen, teilatuko estalkiaren zatiak harrapatuta.



Teilatua frontisetik hasi eta lehenengo zenbakietako sabaia erabat altxatu du, bai txapa eta baita *soliboak* ere. Hauek gainera Eliza Zaharreko teilatua kolpatu eta hemen ere kalteak eragin dituzte. Eta azkenik auzokide batzuen autoak ere nahiko kaltetuak izan dira.

Lanak izango dira hau guztia konpontzen. Eguraldiak horrelakoak ekarri dizkigu eta aurre egin behar denei. Ez dago beste aukerarik.

KALEZAR

MADDI GALBETE

Ikastolako umeak



Hilabete bat pasa dut Usurbilgo ikastolan, ume guztien inguruan, musika saio bakoitzean praktiketean.

Harrigarria da zenbat aldatzen diren gauzak txikia zarenetik apur bat handitzen zarenera.

Zein desberdin ikusten diren gauzak ume zarenetik handiago zarenera.

Polita da ikustea nola gozaten duten umeek zuk gozaten zenuen gauzekin, eta gozatzeko aukera izan ez zenuen beste batzuekin. Polita da ikustea ze indarrez abesten duten, zein gogotsu jolasten duten eta zenbat daukaten eman eta jasotzeko.

Umeetan bezala sentitu naiz une askotan, hainbeste gustatzen zitzaidan musika saio horietan murgildurik. Inauteriak tartean, txikiak ginenean gehien gustatzen zitzaigun tartea izaten zen, dantzak prestatzen genituelako mozorroekin batera, eta ondoren kiroldegian izugarritzko ikuskizuna sortzen zelako, milaka pertsona betetako eserlekuen aurrean. Aurten ere, modu desberdin batean baina antzekoa bizi dut. Inauteriak bukatzean, prestatzeko beste ehun gauza, bata bestearen atzetik, milaka gauza baitaude antolatzeko.

Honetan eta horretan pasa zaigu hilabetea, motz geratu zaigu, egia esan. Baina asko ikasi dudala esan dezaket. Musikari buruz, ikastolari buruz, eta batez ere, umei buruz.

ZUBIETA

DENIS ELORTZA

Herri bilera Kaxkapen

Usurbildarrek martxoaren 16tik aurrera bere herriaz harroago egoteko moduan izango dira. Izan ere, atez ateko bilketarekin, Usurbil erreferente izango da garapen iraungarriaren bidetik modernizatu nahi duten gainontzeko herri eta hirientzat. Hor ikusten dut Usurbilgo alkatea, aurki hango eta hemengo hitzaldietan Usurbil %80ko birziklatze tasara nola iritsi den azaltzen. Ea ba tasa horretara laster iristen zareten eta, bejondeizuela!, Usurbil herri txiki euskaldun izatetik herri euskaldun moderno izatera pasako da eta.

Donostiak halako batean hartuko ahal du bide hori... oraingoz, behinik behin, Garbi-txikiaren kontuan Donostiako Udala trabak jarri eta jarri ari da eta, egoeraren larriaren aurrean, Herri Batzarrak zubietar guztioi bilerarako dei urgentea egin digu. Herri bilera ostiral honetan, 18:30ean izango da Kaxkapen.

Bai, bai, Kaxkapen, alegia, frontoi atzeko lokalean. Zubietta Lantzenek deitutako lehiaketan (eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi) Karmele Urdanpilletak Kaxkape izena proposatu du eta bi lagunentzako sagardotegiko afaria irabazi du. Izena nondik datorren? Jo www.blogak.com/zubietalantzen webgunera...



Hasi da Soinurbil

Divertimento konpainiarekin hasi zen asteartean Soinurbil, Zumarte Musika Eskolak antolatu duen Musika Astea. Aurten, bosgarren edizioa ospatzen den honetan, Gipuzkoako musika talde askoren bisita jasoko dugu.

Ostiral honetan, saxofoia izango da izarra. Hernani eta Usurbilgo saxofoi ikasleek musika klasikoa eta jazz doinuak eskainiko dituzte.

Larunbatean, Oñatiko abesbatzak hurbilduko dira Sutegira eta Zumarteko ikasleekin batera arituko dira kantuan.

Igandean, aldiz, Tolosako Musika Banda kalejiran ibiliko da.



OÑATI ETA USURBILGO ABESBATZAK LARUNBAT HONETAN ARITUKO DIRA SUTEGIN KANTUAN. ARRATSALDEKO 18:30EAN HASIKO DA KANTALDIA.

Asteburua bete ekitaldi

Martxoak 12, osteguna
14:45/15:30 Zumarteko ikasle gazteen kontzertu pedagogikoa Udarregi ikastolako ikasleentzat Sutegin. 4-7 urte arteko ikasleei zuzendua.

Martxoak 13, ostirala
19:30 Hernaniko "Hernasax" Saxofoi Taldea, Zumarteko saxofoiko ikasleekin batera Sutegin.

Martxoak 14, larunbata
18:30 Oñatiko "Ganbara Txikitxoak", "Ganbara Txiki" eta Zumarte Txiki eta Zumarte Abesbatzak Sutegin.

Martxoak 15, igandea
11:30ean kalejira Tolosako Musika Banda. 12:30ean, Tolosako Musika Bandaren kontzertua frontoian.

Martxoak 26, osteguna
19:00 Usurbilgo Zumarte eta Orioko Danbolin Musika eskolako ikasleak Orioko kultur etxean.

Antolatzaileak: Zumarte Musika Eskola eta Udala.

Laguntzaileak: Gipuzkoako Foru Aldundia, Kutxa eta Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarte.

"Andatza" taldeak Elgoibarren kantatuko du larunbat honetan

Larunbat honetan, "Elgoibar-ko Herria, Instrumentu Taldeen Lehiaketan" arituko dira argazkian azaltzen diren gazte musikariak. Andatza taldeko kideak dira eta Zumarteko Musika Eskolan ikasten dute. Elgoibarren 18 urte bitartekoen kategorian hartuko dute parte. Arratsaldeko 16:30ean hasiko dira B kategoria-ko 13 taldeen emanaldiak, Inazio Bereziartua Musika Eskolako

auditorioan.

Bi abestirekin aurkeztuko dira lehiaketara: "Iluntzean" (Maixa eta Ixiar) eta "Guk euskaraz" (Urko).

Taldeko partaideak: Eneritz Agirre (trikitixa-ahotsa), Nekane Otaegi (trikitixa-ahotsa), Oihana Arsuaga (gitarra elektrikoa), Ainhoa Azpiroz (teklatura) eta Jokin Irastorza (bateria). Juan Tapia da euren irakaslea. Zorte on!



LEHIAKETAN PARTE HARTUKO DUTE "ILUNTZEAN" ETA "GUK EUSKARAZ" KANTUEKIN.

Osasuna atez ate

MARTXOAK 16

Martxoaren 16an Usurbilgo herriak hondakinen atez ateko bilketa abiatuko du. Zaborrik gabeko herria izango da, eta, ondorioz, usurbildarren osasuna babestuko dugu, ez baita zaborrik izango ez gordetzeko ezta erretzeko ere.

Azkenean ulertu dugu ingurugiroaren osasuna eta gurea bat eta bera direla.



www.usurbil.net/atezate

Asteburu honetan kenduko dituzte zabor ontziak...

Kaleko hondakin ontziak agurtzeko garaia heldu da. Gertaera ez da oharkabean igaroko. Atez ateko eragileek jaialdia antolatu diete. Kalejira eta musika tar-tekaturko dira larunbat honetan, eguerdi partean burutuko den ekitaldian.

Eguerdiko 12:00etan hasiko da jaialdia frontoian. Hondakinen inguruko emanaldia eskainiko dute Porrotx eta Marimotots bikote eza-gunak.

Ondoren, egungo hondakin kudeaketa sistema, kaleetan aurki ditzakegun hondakin ontziak agurtzeko tar-tea hartuko da, kalejira baten bidez.

Jaia hasiko den lekura itzulita, pilotalekuan atez ateko eragileek martxoaren 16tik aurrera abian jarriko den bilketa modu berria aurkeztuko dute jendaurrean. Jai giroak, **Joseba Tapia** ardatz izango duen erromeri giroarekin jarraituko du. Eta **Mal de Ojo** tal-



HONAKO HAUEK IRUDIETAKO EDUKI ONTZIEN AZKEN ORDUAK DIRA. ASTELEHENERAKO GUZTIAK DESAGERTUKO DIRA, BERDE KOLDREKOA, BEIRARENA IZAN EZIK, KALEAN JARRAITUKO BAITU.

deko abeslariak atez atekoari buruz egindako abestia ere entzun ahalko da lehen aldiz. Sabela betetzeko berriz, pintxo jana izango da.

Bazkalordura arte luzatuko den jaialdia oparoa izango da. Errausketaren Aurkako Plataformak ere hartuko du parte.

eskerrik
asko

www.aralar.net

ezkerreko **alternatiba** abertzalea **aralar**

...eta astelehenean hasiko da atez ateko bilketa

Iritsi da hondakinen kudeaketa modua aldatuko duen eguna; M-16a. Kaleko ontziak agurtu, eta atez atekoari harrera egiteko garaia ailegatu da. Astelehenean ekingo zaio. Jasoko den lehen hondakin zatia organikoa izango da. Prestatu beraz ontzi marroiak.

Martxoaren 16an dator aldaketa. Goizeko 6:30-8:30 artean, atez atekoa egingo den etxe atariak organikoa jasotzen duten ontzi marroiez beteko dira. Jarraian, Udalak kontratatu dituen bost langileek bilketa lanei ekingo diete. Aipatu ordutegiarekin moldatu ezin dutenek, bi larrialdi gune eskura izango dituzte; bata Atallun (Ingemar ondoan) kokatua, eta bestea Aginagan.

Edozein zalantza argitzeko, 900 776 776 telefono zenbakia, atezate@usurbil.net e-posta edota Sutegiko informazio bulegoa hor daude.



UDALAK PREST DU GUZTIA. HERRITARREK ERE BEHARREZKO MATERIALA ETXEAN DUTE. LANGILEAK ETA BILKETA KAMIDIA KALERA ATERATZEKO PREST. ATEZ ATEKOA HASTEA BAINO EZ DA FALTA JADA. MARTXOAREN 16A ATE JOKA DUGU.

Egunez egun, papera, ontzi arinak, erreusa edota pixohialak bilduko dira. Hondakin zati bakoitza noiz bilduko den edota etxe atarian nola utzi behar

den jakiteko, egutegia begiratu edota hor dago Udalak kaleratutako gida ere. Guztia prest dago beraz, atez ateko bilketa sistema berriari ekiteko.

NOAUA! KULTUR ELKARTEKO BAZKIDEEN BATZAR NAGUSIA

EGUNA: MARTXOAK 26, OSTEGUNA

**ORDUA: Lehenengo deialdia, 19:00etan
Bigarren deialdia, 19:15ean**

**TOKIA: NOAUA! Kultur Elkartean egoitzan
Bordaberri 3, behea**

GAI-ZERRENDIA:

1. 2008ko memoria eta balantze ekonomikoa
2. 2009ko egitasmoak eta aurrekontuak
3. Zuzendaritza Batzordearen osaketa eta onarpena
4. Galdera/erantzunak

Usurbilen ere, emakume eta gizonen arteko desberdintasunak nabariak dira

Hala dio Elhuyarrek Udalarentzat egin duen diagnostikoak

Aukera berdintasuna aztergai da egunotan. Diagnostia osatzeko burututako datu bilduma aurkeztu berri dute Artzabalén. Baina gizon eta emakumezkoen aukera berdintasunaren alorrari lotuta egin nahi den lana hemen ez da amaitzen, plana diseinatzea falta baita. Elhuyar Aholkularitzako teknikari Aizpea Otaegik aipatu moduan, diagnosian bezala, prozesu honen bigarren fase horretan ere, elkarlana giltzarria izango da; Udala eta Elhuyar Aholkularitzarena, baina baita herriko eragile zein herritarren parte hartzea ere.

NOAUA! Bildu dituzuen datuetan, gizon eta emakumeen aukera-berdintasunari lotuta, zer nolako desberdintasunak ageri dira?

Aizpea Otaegi. Errealitateak ñabar-dura asko ditu eta ez da erraza egunero-ko bizitzako desberdintasunak aztertzea. Gainera, horren berri eman dezakeen informazioa askotan eskasa izaten da eta, dagoenean, ez da sexuaren arabera bereizita egoten. Lehendabiziko zailtasuna, beraz, errealitate hori aztertzeko baliabide falta da; eta ez badugu errealitate hori aztertzeko bitartekorik jartzen, ez dugu izango errealitate horren berri eta ez dugu ikusiko erreali-



EGIN BERRI DEN DIAGNOSIA BALIATUKO DUTE BERDINTASUN PLANA OSATZEKO.

tate hori aldatzeko edo eraldatzeko beharrik. Horregatik, lehendabiziko lana errealitate hori aztertzea da, eta lan honek horretarako balio izan du: errealitate hori ikustarazteko. Azterketak, noski, emakume eta gizonen arteko desberdintasunak jarri ditu agerian.

N. Beste herriekin alderatuta, ondorio edo ezaugarri nabarmenen bat azpimarra daiteke, bereziki Usurbilgoa izan litekeena?

A. O. Datu horiek orokortu egin daitezke, joera orokorrak dira, EAEko datuak aztertuz gero, topatuko ditugunak. Kontua da errealitate horren aurrean zer jarrera hartzen dugun. Horretan dago, beharbada, herri batetik besterako aldea. Usurbilen kasuan, Udalak urrats bat egin du, hainbat udalerritan ematen ari dena: egoera aztertu eta ikustaraztea. Hori da abiapuntua eta horixe da, hain zuzen, besteengandik modu positiboan bereizteko modua.

“Berdintasunarekin zerikusia daukaten gaietan, oraindik beharrezkoa da hausnarketa sustatzea”

NOAUA! Aukera berdintasunaren gaiari buruzko gertuko ala urruneko ikuspegia dute herritarrek?

Aizpea Otaegi. Egia esan, gure lan egiteko modua eraldatzailea da eta horrelakoak lantzen ditugunean beti izaten dugu helburu bat, zeharkakoa baina oso garrantzitsua: gaiaren inguruan jendeari hausnartzeko aukera ematea eta gaiarekiko sentsibilizatzea.

Berdintasunarekin zerikusia daukaten gaietan, oraindik beharrezkoa da hausnarketa sustatzea eta sentsibilizatzea, eta egitasmoak horretarako aukera izan nahi izan du.

N. Nola baloratzen duzue orain arte burututako lana?

A. O. Oso ondo. Honelako ekimenak martxan jarri eta garatzea oso

garrantzitsua da, zuzen-zuzenean eragiten dutelako herritarren bizi-kalitatean, bai emakumeenean, bai gizonenean. Dena den, garrantzitsua litzateke diagnostikoa egitetik urrunago joatea eta abiatutako lanarekin jarraitzea: Plana diseinatzea eta garatzea, Udalak giza baliabide espezifikoak izateko urratsak egitea, etab. Eta badirudi Udala horretan ari dela.

Aizpea Otaegi Elhuyarreko aholkularia

“Plana diseinatzeko fasean, usurbildarrek zeresan handia izango dute”

NOAUA! Egingako datu-bilketa zertarako baliatu nahi da orain?

Aizpea Otaegi. Datu-bilketak errealitatearen argazkia ateratzeko balio izan du eta horri esker gustatzen ez zaiguna identifikatuko dugu, aldatu nahi duguna aldatzeko tresna emango digu. Baina horretarako aurrera egin beharko dugu: diagnostikoan oinarritutako Plana diseinatu eta martxan jarri. Gauzak aldatzen joan ahala, egingakoaren bidearen erreferentzia emango digu diagnostikoak: zer egin dugun, zenbat aurreratu dugun, lehen nola geunden eta orain nola gauden...

AIZPEA OTAEGI

“Udaleko langileekin, ordezkari politikoekin, herritarrekin... lan eginez osatu dugu diagnostikoa”

Bestalde, egingako datu-bilketa baliatu nahi izan dugu hausnartzeko eta sentsibilizatzeko, eta egitasmoak izan duen eragin-eremuan horretarako balio izan du: datuak biltzeko, Usurbilgo Udaleko langileekin, ordezkari politikoekin, herritarrekin eta bestelako eragileekin lan egin dugu, eta horrek berak badu bere garrantzia eta balioa.

N. Parte hartzeko prozesua ez da hemen amaitzen. Aukera berdintasunaren gaiari lotuta, herritarrek zeresana izaten jarraituko dute?

A. O. Hori da asmoa. Diagnostikoa parte-hartzean oinarritu dugu, besteak beste, horrela egin, berdintasunaren inguruan saretze-lan bat egin nahi genuelako. Diagnostikoa eta Plana herritarren eta eragileen parte-hartzerik gabe egiteak ez du zentzu handirik, Plana errealitateari lotuta egin nahi badugu eta Planaren garapenean eragileek eta herritarrek inplikatzeko nahi badugu, behintzat. Diagnostiko fasean bezalaxe, Plana diseinatzeko fasean ere herritarrekin lanean jarraitu nahiko genuke, herriko eragileekin, ordezkari politikoekin, langileekin, herritarrekin... Oro har, berdintasunaren aldeko eragileek eta herritarrek osatutako sarea egituratzen. Aurrerantzean egin beharrek lanetan, beraz, aukera izango da parte hartzeko, bai orain arte parte hartu dutenek, baita parte hartu ez



AIZPEA OTAEGI ARITU DA DIAGNOSIA OSATZEN.

dutenek ere.

N. Parte hartzeko asmoz dagoenak zer egin dezake?

A. O. Norbaitek interesa badu eta parte hartzeko izena eman nahi badu, telefono honetara dei dezake: 943 377110 (Olatz).

Gazteriari buruzko ikerketa egiten ari da Udala

Herriko gazteek dituzten beharrik ezagutzeko ikerketa egiten ari da Usurbilgo Udalarentzat Kalekka enpresa.

Azterketak 13-19 urte bitarteko gazteen beharrik ezagutzeko helburu. Azterketaren emaitzekin adin tarte horretarako diagnostia egingo da eta diagnosi horretatik abiatuta datozen urteetarako ekintza-lerroak zehaztu nahi dira.

Apirila amaierarako ikerketa amaitu egotea espero da.

Hiru teknikan oinarrituta egingo da ikerketa. Batetik, dagoeneko egina dauden ikerketak aztertuko dira, egungo gizartearen testuingurua ezagutzeko. Bestetik, teknikariekin hitz egingo dute, haien esperientzia eta ezagutzan oinarrituta datu objektiboak biltzeko eta, azkenik, bildutako informazioa Usurbilgo errealitatearekin parekatuko dute, horretarako herrian zehar alde batetik bestera ibi-

liz eta herriko gazteak gertutik ezagutzeko.

Egunotan, gazteengana hurbilduko dira galdezka

Litekeena da datozen egunetan, Kalekako teknikariak herritarrengana, eta bereziki gazteengana, galderaren bat egitera hurbiltzea. Udaletik biziki eskertuko lukete, ikerketaren helburua zein den ikusita, teknikari hauei harrera ona egitea.

Kutxa Espazioan izan gara

Otsailaren 13an DBH 3.mailako ikasleak Miramongo Kutxa Espazioa joan ginen. Bertan, bi taldetan banaturik, elektrizitatearen eta argiaren gelak ikusi genituen.

Ondoren, hamaiketako egin ostean, denbora libre eduki genuen "Kutxa Espazioa" gure kabuz ikusteko. Gero elektrizitatearen tailer batean egon ginen bi gelak batera. Bertan hainbat saiakera egin genituen elektrizitatearekin jolastuz. Azkenik beste ordubete libre eduki eta 14:30etarako Usurbilen ginen. Esperientzia ederra izan zen eta oso ongi pasatu genuen.

Udarregi Ikastolako
DBH3ko ikasleak.



DBH 3. MAILAKO IKASLEAK
GUSTURA IBILI ZIREN KUTXA
ESPAZIOAN.

Ludotekako bazkideek
astelehenean jasoko
dituzte lokaleko giltzak

Lehen Gure Pakea zahar egoitza lizen lokalean jarri da ludoteka berria martxan. Bihurri izena ipini diote. Lokala udalarena da baina gurasoen esku utzi dute, ludoteka moduan erabiltzeko. Dagoeneko 50 dira bertako bazkideak. 0-6 urteko gaztetxoek zuzenduta dago ludoteka zerbitzua, baina gurasoak bazkide egin behar dira. Kuota, urtean, 10 euro. Informazio gehiago, ludotekan bertan edo udaletxean jaso daiteke.

Datorren astelehenean, martxoak 16, giltza bana emango zaie Bihurri ludotekan bazkide egin diren gurasoei. Arratsaldeko 17:00etan zabalduko dira ateak.

Larunbat honetan, II. Gau Beltza Aginagan

Aginagako Eliza Zaharrea Gau Beltzaren edizio berri bat ospatuko da larunbat honetan. Kaotiko, Disturbio eta Sortuz taldeak arituko dira, 22:30ean hasiko den kontzertuan. Sarrerak alde aurretik 10 eurotan jarri dituzte salgai, Irratin eta Arraten (Aginaga). Egunean bertan, sarrerak 13 eurotan salduko dira.

Iaz egin zen lehen Gau Beltza eta kontzertuak jende asko bildu zuen. Anestesia izan zen orduko taldeetako bat. Aurtengo Gau Beltzan, ordea, aguraindarrak izango dira protagonista nagusiak, Kaotiko, Disturbio eta Sortuz taldeak bertakoak baitira. Aginagako Eliza Zaharrea.

Hiru taldeak, Aguraingoak

Kaotiko taldekoak "Adrenalina" diskoa ari dira aurkezten egunotan.



IRUDIAN, KAOTIKO TALDEKOAK. SARRERAK IRRATIN ETA ARRATEN DAUDE SALGAI.

Maiz izan dira gure artean kantari.

Disturbiokoak "Muy tóxico" diskoa argitaratu zuten udazkenean.

Sortuz taldeak ere disko bat du kalean; euskaraz kantatzen dute. Kontzertua 22:30ean hasiko da.

Enrike Huizi eta Mikel Leunda, Trinkete Txapelketako irabazleak

Enrike Huizi eta Mikel Leundak irabazi dute eskuz binakako Gipuzkoako Trinkete Txapelketa. Aurreko larunbatean jokatu zen finala, Irurako trinketean. Aurrez aurre, Hernaniko bi pilotari hauek izan zituzten: Bixintxo Bilbao eta Eñaut Esnaola. Azken emaitzari erreparatzen badiogu, usurbildarrak izan ziren jaun eta jabe. 40-26 izan zen finaleko azken emaitza.

Pilotako kontuekin jarraituz, aurreko astean TeleDonosti Txapelketako partida martxoaren 6an jokatu zela iragarri genuen, baina partida hori ostiral honetan jokatu da Antiguan (Donostia), 19:30etik aurrera.



ENRIKE HUIZI ETA MIKEL LEUNDA,
IRURAKO SARI BANAKETAN.

Iruin sagardotegian bi lagunentzat afaria



Irudian da eskubaloitako taldeak leindako azken zozketan saritua izan den laguna, Jose Ramon Alzaga. Iruinen bi lagunentzat afaria irabazi du. Usurbil KE taldeko kideek eskerak eman nahi dizkiete Iruin sagardotegikoiei eta baita zozketan parte hartzen duten guztiei.

20. Lilatoian, usurbildar ugari

Ezeiza Iruretagoiena, Idoia	0:19:59
Urdanpilleta Martikorena, Elhuiar	0:23:26
Alkorta Urdanpilleta, Agurtzane	0:27:32
Olasagasti Intxausti, Gemma	0:27:48
Arruti Arregi, Josune	0:27:57
Egiguren Urkola, Garazi	0:27:59
Manzisor Sein, Ainara	0:28:53
Aizpurua Irazusta, Ana Isabel	0:28:54
Olaizola Iparragirre, Alazne	0:29:03
Circujano Morales, Ines	0:30:32
Arruti Urkiola, Nagore	0:32:10
Tardio Nuñez, Mamen	0:32:14
Kaperotxipi, Idoia	0:33:10
Uribe Navarro, Ainara	0:33:58
Bengoetxea Ugarte, Karmele	0:33:58
Eraunzetamurgil Manterola, Nerea	0:33:58
Marcos Flores, Patricia	0:39:38

Iturria: Lilatoiaaren antolaketa batzordea.

Urkulu mendira irteera

Ikasturte honetan, Euskal Herriko zazpi herrialdeak bisitatu nahi ditu Andatza Mendi Taldeak. Eta herrialde bakoitzean, mendi bat igo. Mendi batera igo eta tokian tokiko bazterrak ezagutu. Martxoaren 29an, Behe Nafarroara joango dira. Urkulu mendira (1.419 m) igo nahi dute. Orbaitzeta inguruan dago eta mendi-lerro ederra ikusten da Urkulu menditik. Egunean bertan, goizeko 7:00etan aterako dira Andatzako egoitzatik.

Larunbatean, txirrindulari lasterketa

Alerketa antolatu da larunbat honetarako, martxoak 14, Zumartegi industrialdean. 15:30ean bilduko dira eta 16:30ak aldera hasiko da lasterketa. Antolatzaileek bertara joatera deitzen dituzte herritarrak. Kirolari gazteak animatu eta ahal duenak proba prestatzen laguntzera.

PILOTA PARTIDAK

Udaberri Txapelketa

MARTXOAK 13 OSTIRALA,

Usurbilen, 20:00etan

Jubenilak, 1. maila

USURBIL - BERGARA

(Gorka Mendizabal - Josu Ostolaza)

TeleDonosti Txapelketa

MARTXOAK 13 OSTIRALA,

Antiguan 19:30ean

Jubenilak, banaka lau t'erdian

Xabier Santxo - Iraitz Arrieta

(Usurbil) (Markina)

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

LATAILLADE ITURGINTZA

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxo 8, behea · 943 363 548 · 609 888 021

Agenda !

Martxoak 12 osteguna

- Zumarteko ikasle gazteen kontzertu pedagogikoa ikastolako ikasleentzat, 14:45ean eta 15:30ean Sutegin.

- Gurasoentzat hitzaldia Udarregin, Hitz Ahok deituta. 17:00etatik aurrera.

Martxoak 13 ostirala

- Hernaniko "Hernasax" saxofoi taldearen eta Zumarteko saxofoiko ikasleentzako kontzertua. 19:30ean Sutegin.

Martxoak 14 larunbata

- "Zaborrontzei agur, atez atekoari ongi etorri", festa frontoian, 12:00etatik 14:00ak arte.

- Oñatiko Ganbara Txikitxoak, Ganbara Txiki, Zumarte Txiki eta Zumarte Abesbatzak. 18:30 Sutegin.

- Kaotiko, Disturbio, Sortuz. 22:30ean Aginagako Eliza Zaharrean.

Martxoak 15 igandea

- Tolosako Musika Banda kalejira eta kontzertua. 11:30 kaleran, 12:30 frontoian.

KzGunea, ikastaroak

Martxoak 17 asteartea
POSTAL BAT BIDAD EZAZU
Orduetgia: 16:00-17:00

ZURE SEMA-ALABA BABESTU
Orduetgia: 17:00-18:00

SINADURA ELEKTRONIKOA
Orduetgia: 18:00-20:00

Martxoak 18 asteazkena
ZURE EGUNKARIA IRAKURRI
Orduetgia: 16:00-17:00

ITZULTZAILEAK

Orduetgia: 17:00-18:00

Martxoan arratsalde, 16:00-20:00
Kale Nagusia 37. Tel: 943 361412.

Haizeak kalte ugari eragin zituen

Martxoaren 5eko haize erauntsiak gogor astindu zituen gure bazterrak. Kaltetuenak Osinaldeko Izagirre enpresa eta Aginagako Ariztitxo pilotalekua izan ziren. Bi kasuetan, haizeak teila-tuetan kalte handiak eragin zituen.

Aginagako Ariztitxo pilotalekuan, haizeak frontis aldeko teila-tua altza zuen. Ez bakarrik kanpoko xafla metalikoak, baita hezurdurako egurrak ere. Pentsa nolakoa izan zen haizearen indarra, xafla horiek Aginagako Eliza Zaharreko teila-tua ere kolpatu zutela. Kalte pertsonalik ez baina kalte materialak ugari izan ziren; pilotaleku inguruan aparkatuta zeuden autoetan hain zuzen.

Izagirre lantegia ere, kaltetua

Haize erauntsiak Osinalde industrialdea ere kolpatu zuen. Aginagan bezala, Izagirre lantegian ere teila-tuko xaflak hegan atera ziren. Inguruko autoak izan ziren kaltetuenak. Hain zen indartsua haizea, xafla horietako batzuk N-634 errepidea zeharkatu eta Atxegaldeko



Imanol Azkue

DENBORA BEHARKO DA AGINAGAKO TEILATUA KONPONTZEKO. AZPIAN, IZAGIRREKO TEILATUA KALTETURIK.

baratze bateraino iritsi ziren.

Argazkiak, www.noaua.com

Irudi gehiago www.noaua.com web orrian, "Argazkitegia" atalean ikusgai, "Haizetea, 2009-III-05" karpentan.

Nafartarrak kultur taldeak historia ikastaroa antolatu du

Historia, euskaldunak eta Nafarroa ikastaroa martxoaren 30ean hasi eta ekainaren 8an amaituko da. Astelehenetan bilduko dira Sutegin, 19:00etatik 21:00etara.

Izen-ematea ireki da

Historian adituak diren hainbat hizlari hurbilduko dira Sutegira. Izen-ematea martxoaren 15ean hasi eta martxoaren 30ean amaituko da.

Usurbildarrek 25 euro ordaindu behariko dituzte ikastaroarengatik. Gainerakoek, 30 euro. Hitzaldi solteak entzuteko aukera ere badago. Kasu horretan, egunean bertan, 5 euro.

Diru-kopurua kontu-zenbaki hone-tan sartu behar da:

3035 0140 30 1400900017.

Ordainketa egiterakoan, izen-abizenak adierazi. Ordainagiria, ikastaroaren lehen egunean aurkeztu eta kito.

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

ALIPROX
Kale Nagusia 10
943 361 182
USURBIL

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

ETXEBIZITZA

- Santuenea etxebizitza bat daukagu salgai. 2 logela, sala, sukaldea eta komuna dauzka. 28 miloi negoziagarri. 619591849 / 626456448.
- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
- Kaxkoan pisu bat alokatzen dugu, garajea eta trasteroa dauka. Abala eskatuko da. Deitu 18:00etik 21:00etara, 656 75 70 73.
- Bikote batek logela alokatzen dio bakarrik dagoen pertsona bati. Prezioa 280 euro gehi gastuak. 943575788 / 609901734.
- Pisu salgai Usurbilen (Txaramunto; 2 urte). 97 m² - erabilgarri. Egongela-sukaldea (35 m²), 3 logela, 2 bainugela, balkoia, arropak eskitzeko toki itxia, garajea, trasteleku eta igogailua. Eguzkitsua. 375.000 euro. 616443507.
- Etxebizitza bat alokatu hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Baserri bat hartuko genuke errentan bi lagunek. 656 703 814.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituen. Dena berritua eta amueblatua. 45.000.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Xsara Picasso salgai. 2000 urtekoa eta egoera oso onean. 4500 euro, negoziagarriak. 610975757 (Paulo).
- Mitsubishi Montero DI-D 3.2 GLS motza salgai. 148000Km, 6 urte. Tel.: 678636965
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajejan, ondo zaindua. 622369646.

- Usurbilen lokal bat daukat alokatzeko 350 euro hilean. Komuna dauka. 650938489.
- Komuna duen 75 metro karratuko soto komertziala alokatzen dut Usurbilen. 650943847.
- Garaje bat salgai Kale Nagusian, 200 m². Oso merke. 657 700 408.
- Bost ateko Nissan Micra daukat salgai. Matrikula 4545DNN. 666894283 (Ana).
- Atxegalden 30 metro karratuko lokala alokatzen da 943373481 / 943373414.
- Atxegalden Aristixo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeite kalean 44 m²-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.
- Galtzaraginan (Dia ondoan) 14 metro karratuko garaje txiki bat daukat salgai. 617972350

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Astebukaeratan lan egiteko, parrilarako pertsona bat eta beste bat zerbitzari moduan aritzeko behar ditugu. 943 36 67 10.
- Astelehenerik ostiralera eta 13:30tatik 16:30 etxeko lanak eta umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. 615 756 893.
- Batxiler 2.mailako ikasle bati astean ordubetez historiako klase partikularrak emateko pertsona bat behar da. Euskaraz jakitea eskatzen da. 943 365 255.

Lan-eskaintzak

- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
- Emakumea adineko pertsonak zaintzeko prest, interna moduan. 608 098 941.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia eta informea ditut. 697737459.
- Emakume gazte bat lan bila dabil, orduka edota plantxan aritzeko: 630 438 571.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.

- Goizez haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest nago. 616 376 591.
- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko... Interesatuak deitu 21:00-23:00 edo kontestagailuan mezua utzi, 943 36 44 69. Esperientziaduna.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Martxoko azken larunbatean pultsera bat galdu nuen Eguzkitzaldea auzoan. Mailaduna da eta perla urdinak edo "aguamarinak" ditu. Aurkitu baduzu udaltzainetara bueltatu.
- Inauterietako igande goizean Nokia telefono bat ahaztu genuen zesto baten barruan. Aurkitu duenak Txirristran edo Udaletxean bueltatu dezala. Egun batzuren bueltan telefonoa blokeatuko da eta ez du balioko inorentzat.
- AC/DC taldeak, martxoak 31 asteartea Bartzelonan eskeiniko duen kontzertura Donostiatik joateko autobusa antolatua da. Joantetorria 50 euro. Eserleku kopurua mugatua. Izena emateko: bus_acdc@hotmail.com
- Pasa den urtarrilaren 29an erloju bat galdu nuen, Erreka Txiki eta Kale Nagusi inguruetan. 943 371919.
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Interesatua bazaude maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Etxebizitzen erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. 626 220925
- 2. eskuko trikitixa erosiko nuke. 6567652 13.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapo-re@euskalnet.net



Zorionak Oihan!

Urte txiki bat egingo duzu martxoaren 11n, zorionak etxeko guztien partez eta bereziki zure arrebaren partez muxu pilo bat. Ondo pasa txiki!



Zorionak Iratxe!

Martxoaren 13an 6 muxu pottolo etxeko guztien partetik. Ondo ondo pasa eta afari goxoa prestatu eh!

Dagoeneko urtebete pasa da eta martxoaren 11n urtea beteko duzu, Iera. Zorionak eta ongi ongi pasa eguna eta PA asko etxekoan partez!



Zorionak bikote! Martxoaren 15ean egingo dituzue urteak eta etxekoek zorionak eta muxu potolo bat bidali nahi izan dugu. Zorionak!!

Zorionak Garaxi

etxekoan partez martxoak 13 iritsi zaizunetz utzi ohiturarekin jarraitzen gutxienez bat, bi, hiru eta lau xuabe eginez ez zaitzugu eta utziko belarriko minez



JAIOTZAK

Miren Martin Tello, otsailak 15
Adur Ayuso Iturain, otsailak 21
Mikel Irazabal Esnaola, otsailak 26
Manex Indakoetxea Lizeaga, otsailak 27
Kattalin Ostolaza Jauregi, martxoak 2

HILDAKOAK

Lucia Beloki Olló
Martxoaren 2an hil zen
89 urterekin



HILDAKOAK

Jose Mari Ugartemendia
Martxoaren 8an hil zen
Kaleberri



osasun gida

Farmazia



Iturralde
botika

Tomas Iturralde botika
K.P.S. N° 88/07

- ✓ Maisu formulak
- ✓ Dermofarmazia
- ✓ Produktu Homeopaticoak

Borda berri 1, 20170 USURBIL ☎ 943 36 33 95

Fisioterapia



FISIOTERAPIA ZENTROA

Ibaiondo

Fisioterapia
Osteopatia
Errehabilitazioa
Masajeak

Ola kalea, 12 LASARTE-ORIA • ☎ 943 370 306

Masajista



Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

☎ 943 366 197
Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

Optika



USURBIL
OPTIKA

Entzumeneko aparatuak • Igerilekuko tapoiak neurrira eginda
BEHERAPENAK eguzkitako betaurekotan

Zubiaurrenea, 10. USURBIL • ☎ 943 370 269

Hortz klinika

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL

TXOTX!!



Tel.: 943 365 031

Mugikorra: 670 027 731

Santuenea



Larre-Gain Baseria Ereñotzu - Hernani

Tel.: 943 55 58 46 Mugik.: 616 287 867



ERRETEGIA-NEKAZALTURISMOA

ARRATZAIN

TOLARE-SAGARDOTEGIA

Egunero irekia.

Arratzainzar Baseria
info@agroturismoarratzain.com

Tel: 943 36 66 63
20170 USURBIL



Aginaga

Sagardotegia

Urte osoan txotxetik

Estrata kalea, 7
Aginaga auzoa, USURBIL
Tel. eta Faxe: 943 36 67 10
Tel.: 943 37 06 68

a.sagardotegia@aginagasagardotegia.com

